

# EUSKO IKASKUNTZAREN XIX. KONGRESUA KARTEL OFIZIALA HAUTATZEKO LEHIAKETA

## OINARRIAK:

1. 2024ko Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuko kartel ofiziala hautatzea izango da lehiaketaren xedea.
2. Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu, originalak, argitaragabeak eta beste inongo lehiaketatan sarituak izan ez direnak eta, osorik edo zati batean, norberaren edo beste baten lan edo irudi batzuen kopia edo plagioa ez dakartenak.
3. **Kartelaren diseinua Kongresuaren gaiarekin lotzea eskatzen da.** Kartelean agertzen diren irudi eta elementuen eskubideen jabetza kartelaren egilearenak edo erabilera libreko errekurtsoak izan behar dute. Egileak izango dira oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzearen arduradun.
4. Kartelaren neurriak: 70 cm goi-behe, 50 cm zabal.
5. Euskarri fisikoa: kartelek, ezinbestean, luma-kartoiaren gainean joan beharko dute, kristalik gabe.
6. Euskarri informatikoa: online aurkeztu (ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus) daiteke, JPC eta TIFF formatuko bi artxiboetan: bata 72 dpitan eta bestea 300 dpi-tan, azken hori 5 mm-ko koskarekin.
7. Teknika: kolorea eta teknika, aukeran.
8. Testu hau agertu beharko da (euskara lehentasunezko lekuan, gaztelaniaz eta frantsesez gero):

## XIX. KONGRESUA

ELKARTZEN GAITUENA / Lo que nos une / Ce qui nous rassemble

Herri Ituna jendartearen eta lurraldeen kohesiorako

Contrato Social para la cohesión social y territorial

Pacte pour la cohésion social et territorial

**2024.10.02-03-04. Gasteiz, Europa Biltzar Jauregia**

9. Irabazle suertatzen den kartelean erakunde-marka nahiz beste batzuk sartu ahal izango ditu Eusko Ikaskuntzak, litezkeen babesleenak barne. Hori dela eta, konposizioaren goiko aldean ezkerrean eta beheko aldean eskuinean testu edo irudirik ez jartzea gomendatzen da. Era berean, Eusko Ikaskuntzaren webgunerako banner formaturako egokitu beharko da kartela (1920 x 963).

10. Aurkezteko epea: **2023ko ekainaren 9tik irailaren 10era bitartean**

11. Aurkezteko moduak:

Fisikoki, Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako egoitzan (behin-behinekoa), Asteasuain 14, 20170 Usurbil (Urbil merkatalgunearen ondoan), nahiz Bilboko, Gasteizko, Iruñako eta Baionako egoitzetan, 08:00etatik 14:00etara. Argibideetarako telefonoa: +34 943 310855.

Birtualki, ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus helbidera dokumentazioa igorritz.

**12.** Identifikazioa: lanak sinadurarik gabe aurkeztu beharko dira -ez paperean, ez euskarri informatikoan-. -

<b>Fisikoki aurkeztutakoak</b>	<b>Birtualki aurkeztutakoak</b>
Lelo edo izena, atzealdean	Lelo edo izena, artxihoan
Gutun itxi batean (lelo edo izenaz identifikatuta), egilearen datuak:	Izen bereko beste artxibo batean, egilearen datuak:

Izen-deiturak, helbidea, NAN zenbakia, telefono zenbakia, e-posta eta jaiotze data, eta **aitorpen sinatu bat, non adierazten den aurkezten den lana jatorrizkoa dela, eta argitaratu gabea.**

Lehiaketak irauten duen bitartean, hots, irabazlearen izena jakitera eman arte, ezingo da inolaz ere publikoki egilearen identitatearen berri eman.

**13.** Saria:

**13.1** Lehiaketa irabazten duen kartelak 1.500 euroko sari bat jasoko du, gordinean.

**13.2** Saria eman gabe utzi ahal izango da, aurkezten diren lanek kalitate plastiko eta tekniko aski ez badute. Hori gertatuz gero, epaimahai teknikoak artista edo diseinatzaile grafiko bati eskatu ahal izango dio kartela egiteko.

**13.3** Saria ordaintzen duelarik, Eusko Ikaskuntzak erosi egingo du irabazle suertatzen den kartela, eta haren egileak kartelaren gaineko jabego intelektualari dagokion eskubide ekonomiko oro modu eskusiboan Eusko Ikaskuntzari emango dio.

**13.4** Eusko Ikaskuntzak libreki ustiatu ahal izango du kartela, edozein modutan ustiatu ere, hala nola erreproduzitu, banatu, jendaurrean zabaldu edo moldatu, Jabego Intelektualaren Legearen Testu Bateratuko 26. artikuluan adierazitako epearen baitan, eta eskubidea izango du obra edozein bitarteko edo euskarri ukigai nahiz ukiezin baliatuz adierazteko. Orobat izango du eskubidea mundu osoan obraren ustiapen komertziala bideratzeko -edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzeko eskubidea eta zabalkundea emateko nahiz publikoki komunikatzeko eskubideak barne-, horretarako edozein modu baliatzen duelarik ere.

Berariaz sartzten da horren baitan lana on-line jarri edo emateko nahiz sare digital interaktiboan bitartez eskuragarri jartzeko eskubidea. Era berean,

edozein komertzializazio euskarritan ere erreproduzitu ahal izango du kartela, dela zuzenean, dela hirugarren bati ustiapen hori baimenduz.

**13.5** Inprimaketa hobetzeko kartel irabazlean zerbait aldatzeko beharra ikusiz gero, hala egin dadila erabaki ahal izango du Eusko Ikaskuntzak eta hori proposatu egileari.

#### **14. Kartel irabazlea aukeratzea:**

##### **14.1 1. fasea: Kartel finalistak hautatzea**

Eusko Ikaskuntzak aukeratutako bost adituk osatutako epaimahaia teknikoak lau kartel finalista hautatuko ditu aurkezten diren lan guztien artean.

Horretarako, alderdi hauek izango ditu kontuan: sormena, kalitate grafikoa nahiz plastikoa, deigarritasuna eta erreproduzitu nahiz editatzeko erraztasuna.

##### **14.2 2. fasea: Kartel irabazlea aukeratzea**

- Epaimahaiaren osaera:

Eusko Ikaskuntzako Zuzendari Nagusia, XIX. Kongresuko Lehendakaria, Kontseilu Errektoreko kide bi, arte eta diseinuan eskarmentua duten bazkide bi eta Eusko Ikaskuntzako Komunikazio arduraduna.

Eusko Ikaskuntzako bazkideek ere bozkatzeko aukera izango dute webgunearen bidez.

Boto gehien jasotzen dituen kartela izango da kartel irabazlea. Berdinketa egongo balitz, kalitatezko botoa Kongresuko lehendakariak emango luke.

**14.3** Azarotik aurrera jakinaraziko da zein den irabazlea, web-orrian eta prentsa ohar baten bidez.

**14.4** Epaimahaiaren ahalmena: zirkunstantzia hauetakoren bat egokitzen delarik, dena delako lana hautatze prozesutik kanpo uzteko ahalmena izango du epaimahaiak:

- Oinarri hauetako irizpide teknikoak betetzen ez badira.
- Egiletza zalantzazkoa bada.
- Pertsonen duintasunaren kontrakoa bada.
- Beste lanen baten plagiotzat jotzen badu, baita, halakotzat jotzerik ez badago ere, imitazio hutsa edo beste lanen batek iradokia bada, edo beste lanen batekin bat badator, halako neurrian non, epaimahaiak, zirkunstantzia horren berri izan orduko, erabakitzen duen ez duela nahikoa originaltasun-merezimendurik.
- Uste badu beste lehiaketaren batean saritutako egile beraren beste lanen batenaren oso antzeko estetika, kontzeptua eta konposizioa dituela.

**15.** Eusko Ikaskuntzak, egoki baderitzo, jendaurreko erakusketa egin ahal izango du aurkezten diren lanen artean hautatutako karteekin -nolanahi ere, irabazlea zein den jakitera eman ondoren-.

**16.** 2024. urteko Kongresurako kartel lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea ekarriko du berekin, baita epaimahaiaren erabakia ere, eta, horrenbestez, ezingo da horien kontra jo.